

AITZINA Editorea: Fermín Munariz. Koordinatzailea: Mariasun Monzón, Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseinatzailea: Juan Luis Nadal. Helbidea: Rincón de la Adriana, 18 behe, 31001 Trunfa. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: 7k@sendinet.es.

NORANTZA

RAMON GAZTELUMENDI

KONPOSQUNE ENPRESAKO PARTAIDEA

«Gure garapena naturarekin bat eginez etor daiteke»

Materia begetala konpostatzeko sortu den enpresa berri honek bi sari jaso ditu dagoeneko: bat Goerrin, Goiekik emandakoa, eta bestea EAE mailan. Enpresa berri honetako bi kideek garapenaren gaziak eta gozoak bizi dituzte azken egunotan: sariak

bai baina laguntzarik jaso ez dutelako. Halere, indar osoa jartzen ari dira birziklapenean inoarrizten den proiektu hau aurrera ateratzeko, ziur daudelako gure garapena naturarekin bat eginez etor daitekeela. Hori dute proiektuaren filosofia.

BEGOÑA SIMÓN

Zer suposatu du sari hauek jasotzeko?

Sari hauek ekonomikoak izan dira, eta esan beharra dago milioi bat ondo eortzen dela 45 milioi inguruko aurrekontua daukan enpresa batean. Halere, hor hasti eta bukatzen da jaso dugun laguntza. Abidide bezala zera esango dizut: Goiekik Kutzarekin zuen hitzarmenak zioenez, Kutzak, enpresa berriak suspertzeko edo abian jartzen laguntzeko, interes baxuak eskainiko zituen sari horren bidez. Akordio horrek porrot egin du eta Kutzak ez du, nolabait, iniziatiba hau begi onez ikusi, begirune zabala eduki beharrean —lana ongizate perspektibatik egiten dugulako—, planteamendu numerikoa egin du. Horrekin egur handia jaso genuen, baita ikusi dugun instituzioen jarretarekin ere. Instituzioek interes handiz ikusten dute birziklapena, baina gero, laguntza gutxi dago, eta halako lana hemen aurrera eramateko behar dena laguntza da, bai teknikoak bai ekonomikoak.

Zein enpresa mota eraman aurrera pentsatu zenutenean,

zergatik aukeratu zenuten birziklapenean inoarrizten den hau?

Guk injenieritza teknikoak ikasi dugu, nekazaritza arloan, eta beti buruan izan dugu birziklatze prozesu horretan hutsune bat zegoela, materialari dagokionez. Are gehiago, Hego Euskal Herrian ez

dago hemengo konpostik, ez da hemen bertan egiten. Bata zela eta bestea zela, birziklatu eta bertako konposta sortu behar genuela pentsatu genuen. Bestalde, guk besteek egiten ez duten beste gauza bat ere egiten dugu: zerbitzu bat eskaini, nondinahi deitzen digutela ere, haraxe joaten gara. Orduan bi zerbitzu es-


kaintzen dugu: bata, bertan dauzkaten adarrak eta guzti geuk eraman, eta, bestea, eskatzen badute, konposta han bertan egin.

Proiektu honetan garapena eta birziklapena elkarrekin azaltzen dira. Batera daitezke garapena eta ingurugiroa errespetatzea?

Bizi garen gizartea ikusita ematen du bi elementu horiek borrokan daudela. Bultzatzen ari den gizartea gero eta konpetitibagoa da eta, beraz, ingurugiroa alde batera uzten da. Guk, nolabait ere, frogatu nahi dugu garapena naturarekin bat eginez etor daitekeela. Gure lanaren bidez, jendearen kontzientzia edo sentsibilizazioan eragin nahi dugu, ahalik eta produktu naturalenak izatea hobe dela zabaldu nahi dugu.

Martxan zaudete, zein erronka duzue hemendik aurrera?

Ateratzen dugun materiala, usteldu ondoren, berriro ziklo naturalean sartzea da gure erronka nagusia, eta, bigarrena, momentu honetan merkatuan ez dagoen baina estimatua eta ona izango den produktu bat eskaintzea. Bestalde, proiektua aurrera ateratzea, hemen birziklapenak bere lekua daukala eta natura errespetatuz gure garapenean aurrera jo dezakegula frogatzea ere.



Karlos Corbella

ZIRTOKA

Coti-Chiavari

Korsika non den, eta korsikar abertzaleek Frantziaren kontra nolako borroka daramaten, azaldu beharrik ez dago. "Aitzina"ko irakurleei bereziki.

Baina orainsu arte Coti-Chiavari izeneko hondartza ez genuen ezagutzen.

Bat-batean, bai. Prentsaiko lehenengo leerroetan agertzen baitzaigu.

Hondartza horretako jatetxe dotore baten kontrako sabotajea, hiru jendearen auziperatu baituzte.

Frantziako iritzi publikoa, eraso ahobatez «korsikar terroristen lepora» botatzeko gertu zegoenarik, plasta galanta agertu da erdi-erdian: sabotajea frantses zerbitzu izkuten ekiniza izan dela.

Eta berri hau oso kontutan hartzekoa da. Korsikar abertzale-tasunaren kontrako gatazkan, frantsesek ez dute zalantzarik izan «gerra zikinean» barrena abiatzeko.

Eta ene galdera hau da: hemen ez horretakorik? Nola dakigu?

Iruñeko zakarontziaren erre-keta bitxian ere... polizia bat agertu baita... kale-borrokaren susmoa nagusi zegoenean.

Azpijoko hauek ez dira gaurkoak. Frankismoaren garaian isilpeko borrokan ibili behar izan genuenok, infiltrazioen arriskuez ongi jabeturik egiten genuen aurrera. Eta askotan «mamuak» ikusten omen genituenok, arrazioa eman behar izan zaigu... handik urteetara!

Orain, «Demokrazia» etorri omen zaigula bide, oso kutsu txarra uzten du gauza hauek gogorazteak, eta xeru-xeru jokatzen dugu bertako gertakari ezin-bitxitago askoren aurrean.

Mundua eta zapalduak herrien historia atzoko kontu orban-gabeak bailirean.

Aitzindariak

MERCEDES COLÁS IRISARRI



«Siendo el primero que se puso al frente de sus requetes para la persecución y captura de los marxistas, D. Luciano Aramendia -el Abuelo- se ha hecho popular entre los lodosanos...»



MERCEDES
ATA HIL DITZE
CATHO
BORRAGIA
BARTZEN LODOZAN

«... Pero el Señor Aramendia no descansa noche y día, y visita y exhibe a los equivocados comunistas de ambos sexos a que reconozcan sus errores...»



ARGENTINARA
JO ZUEN NOIZBRAIT,
BERRIZ
HASTEKOTAN
EDO

«... A las mujeres viejas y jóvenes que han tenido la lengua larga se las ha cortado el pelo con el corb y se las ha hecho pasear por las calles haciéndoles gritar Viva España, Abajo los traidores...»



ILEA
ERROTARRAINO
MOZTU
ETA 12 URTEREKIN
BATAIATU EGUN DUTE

«... Los bautizos de hijos de comunistas continúan celebrándose y el simpático Sr. jefe de los Requetes, el infatigable Abuelo, es el promotor y padrino de estas criaturas.» (Diario de Navarra, 1936/III/30.)



BUENOS AIRESKO
MAMAZO PLAZAKO
AMEN ARTEAN DUZU EGUN;
ALICIA HAREN ALABA
DESAGERTARAZIA DAUKATE
MILITARREK.

ASISKO + IXALAPARTA + SUSANA ALBERTO